



Eman hegoak euskarari



Izurdeen bizitza

Nago nobela honetan orain arteko bere lanen bilketa eta bilduma egin duela Uribek

JON KORTAZAR



EL CORREOri 2018ko irailaren 25ean eman dako elkarrizketa batean agertu zituen 'Izurdeen aurreko bizitza' nobelako zenbait oinarri Kirmen Uribek. Artikulua Caroline Conejerok sinatu eta 'La novela de Uribe en Nueva York' deituriko artikuluan idazlearen asmoen, pentsakizunen eta aburuen berri eman zuen kazetariak.

Kazetariak zioen nobelagilea nobela bat idazten ari zela Rosika Schwimmer (Budapest, 1877-Nueva York, 1948) aktibista eta sufragistaren bizitzan oinarriturikoa. Gaineratu zuen Rosika Schwimmer bakezalea zela, feminista. Eta dokumentazio berri-berria zuela idazleak, argitaragabea, inork inoiz ikusi gabea pertsonaia osatzeko eta

haren berri emateko: «Liluragarria da kutxa bat zabaltzea eta gaur egunean bizi dugun garaikoa izan daitekeen, eta berez izan baden, pertsona batekin topo egitea». Artikuluan esaten da bulgariarra dela protagonista, eta ez, benetan den moduan, hungariarra.

Irakurri nuenean, 2002ko urriaren 12an entzundako berri bat etorri zitzaidan burura. Gasteizko Letren Fakultatean egiten nuen behar eta hara autoz nindoan irratia entzunez, eta Imre Kerteszi Nobel saria eman ziotela hitz egiten ari ziren esatariak. Berria eman ondoren, esatarietako bat kexu agertu zen, «gure Vargas Llosari, dituen dohain eta merezimenduak ahazturik» eman ez ziotelako. Bat-batean ulertu

nuen zergatik eman zioten Imre Kerteszi. Nazien aurkako, sozialista, Alemaniako literatura gunetik irtendako idazlea... Nahiko dohain ziren hungariarrak erakusten zituenak.

Eta konturatu nintzen lehen mailako pertsonaia zuela esku artean Kirmen Uribek bere nobela aurrera eramateko: Europako interes guneetan zegoen pertsonaia, erdi-erdian. Feminista. Bakezalea. Bake Nobel sarirako aipatua... Historiak ahaztua eta idazlearen eskua bidez berriz gure irudimenera eta pentsakizunera ekarria.

Gaur egun, literaturan, gaia interesekoa den ala ez hartzen da kontutan. Interesa duen, interesgarri egin zaigun. Beste

hitzekin esateko, gaurko ideologiaren zertzeladak eta xehetasunak jasotzen dituen ala ez. Urregorria zuen esku artean, bada, Uribek. Euskalduna baino gehiago nobela europarra edo amerikarra egiteko lain zuen interesa.

Kontatzeko modu sotil eta gozoan, nago nobela honetan orain arteko bere lanen bilketa eta bilduma egin duela Kirmen Uribek. Hiru adar nagusi daude kontakizunean. Oraina: Uri(ber)en eta N(ere)oraren bizitza, eta idazle batek nola jaso duen beka Rosika Schwimmerren bizitza ikertzeko. Eta iragana: Rosika Schwimmerren bizitza interesgarria. Eta berriz idazlearen iragana Ondarroan. Haurtzarora eta familia, eta urte gogorren bidea. Bakoitzak Kirmen Uriberen lehenagoko lanak dakartza gogora. Izurdeak metafora gisa, eta buruan ditut «Zuhaitzak eta arrainak» 'Bilbao-New York-Bilbao' nobelan. Rosika Schwimmerren bizitzaren ikerketa ez al da Musscheen ibilbidearena? Idazlearen familiaren bizibideak ez du 'Bar Puerto' gogora ekartzen? Eta teknika, puzzlearen eta

ehungintzaren arteko artisau lan hori, ez ote da Kirmen Uriberen bereko eginkizuna? Ahots desberdinen kontaketa. Oraindik gertatu ez den etorkizuna kontatzeko gogo. Dena lehenago ikusia, baina guztia berri eta ezezagun.

Dokumentazio lana ikaragarria da. Baina hemen dira berriro tonu eta teknika desberdinen agerpena. Eta emakume munduaren argazki ugaria. Zenbat emakume «protagonista» ote dauden nobela honetan? Hangoak eta hemengoak: Rosika eta Edith, Nora eta Maider, ama eta izeko Bego, bakoitza bere historiarekin, bakoitza bere ahotsarekin.

Badago kontakizun adar bat eztena bezala agerian gertu dena. «Izurdeak lehenago pertsonak ziren». Migrazioek eta gure garaiko joan-etorri ugariak nortasunaren aldaketa dakarte, eta identitatearen galdera (eta erantzuna) da nobela horrek agerian utzi duen arnasa. Zer ote garen mundu honetan, zer toki dugun, zer egin dugun eta nola jokatu dugun... Rosika Schwimmerren bizitzak erantzun dituen galderak.

Amen katalogoa

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Mende aldaketarekin amatasunaren gaineko berkontzeptualizazioak berebiziko interesa agerrarazi du euskal idazle eta sortzaileen artean eta askok ikuspegi kritikoa erakutsi dute gai honetaz beren obretan. Feminismoa ardatz hartuta, hausnarketa horietan afera asko kabitzen dira; hala, emakumearen ahalduntzea, gizarte-ereduak, sexualitatea edo hezkidetzak bezalako kontzeptuak mahaigaineratu dira literaturan diskurtso normatibo eta heteropatriarkala salatzeko asmoz.

Goiatz Labandibarrek argitara eman dituen kontakizunetan amatasunaren irudi zatikatuan zentratzen da. Amatasuna erakuntza soziala den aldetik, liburuan aurkeztutako ama-ereduek apurtzen dituzte tradizioz transmititu diren amen inguruko topikoak. Ama izatearen ajeak adierazi eta «ama ona»ren kontra jaitzen dira istorio hauetako emakumeak, egunerokoak zedarri-



AMEZ GOIATZ LABANDIBAR
Alberdania. 140 orr. 14,50 euro

tzen dituen argi-ilunak agerian utziz. Gogoeta bultzatzeaz gain, Labandibarren helburua kontzeptu sozialagoak, baita politikoagoak ere, jokoan jartzea izan da, frustrazioak gainezka egiten dien protagonistak ez baitira konformatzen ama izate hutsarekin.

Estiloari dagokionez, zuzena, arina eta zorrotza da, aurreko lau ipuin liburuen ezaugarriak mantendu dituelarik idazleak. Erritmoa ondo doitzen da eta 21 istorioetan ahotsen eta lekuen aniztasuna aurkitu dezakegu, esaterako, antzinako Erroman, II. Mundu Gerran edo XX. mende hasieran kokatuak. Kontakizunen tonua kritikoa eta bortitza da maiz, taburik eta idealizaziorik gabe. Nire irudiko, dena den, ipuin batzuetan idazlearen tesiak gailendu egiten dira balio literarioaren gainean eta ondorioz, xaloeziak izateko arriskua dago.

Azkenik, interesgarria suertatzen da liburuaren amaieran Labandibarrek egiten duen beste idazlearen aitortza –emakumezkoak, denak, AMAndreak izenburupean–, haien ekarpenegatik liburu hau idatzi bitarteko prozesuan. Ahizpatasuna.

LABUR LABUR

Aitor Etxebarriak Gernika omenduko du

EL CORREO

Aitor Etxebarria gernikar konpositoreak 'Gernika 85.' obra sinfonikoa, «orain arteko proiekturik pertsonalena, ausartena eta handiena», aurkeztuko du ekainaren 30ean, Bilboko Euskalduna jauregian. Gernika jaioterria omenduko du horrela Etxebarriak (El Txef-A izenpean musika elektronikoa ibilbide oparoa egindakoa), ankerkeria haren 85. urterrena betetzen denean.

Ondoan, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Mikel Fernandezek zuzendua, Evelyn Glennie perkusio-jotzailea eta Gernikako Gaudeamus Korala izango ditu Aitor Etxebarriak lan honetan, eta bera pianoaz eta instrumentu elektronikoez arduratuko da.

'Gernika 85.' musikariaren lehen konposizio sinfonikoa da, eta lau mugimenduz osatuta dago. Gainera, musikaz gain, bon-



Aitor Etxebarria.

bardaketatik bizirik atera zirenen lekutasunak proiektatuko dira kontzertuan zehar, Gogora institutuak grabatutako bideoetan. Ekainaren 30eko kontzerturako sarrerak salgai daude dagoeneko Euskaldunaren webgunean.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

3 Koiteretzia

Iñaki Segurola. Alberdania

4 Ez erran inori

Maddi Ane Txoperena. Elkar

EZ FIKZIOA

1 31 ipuin

Anton Txekhov. Elkar

2 Txori Urdinak

Zigor Olabarria. Argia

3 Euskal herriko leiendak

T. Martinez de Lezea/J. L. Landa. Erein

4 Ongi etorri euskal mitologiaren...

Batzuk. Mitologik basoa